

LEKEITIO. Itsasoko arriskuen prebentzinoa eta segurtasuna landuko dabe txalupotan

Udalak txalupa bi erosi ditu beharra bultzatzeko

Prestakuntza jardueretarako eta turismo ekintzetarako erabiliko ditu itsasontziok

Lore Bengoetxea |

Lekeitioko Udalak *Monte Kalamua* eta *Playa de Ondarzabal* barurako txalupak erosi ditu beharra bultzatzeko asmoagaz. Proiektua egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzea euki dau.

Erosketak 2001ean sortutako Garapen Ekonomikoko Plan Estrategikoaren barruan sartzen dira. Ekonomiaren dibertsifikazioa lortu nahian, itsasoko azpiegituri erabilera barria emon nahi izan deusie, eta bide batez beti-betiko azpiegiturak zaindu. «Ezin dogu ahaztu egurrezko txalupek daukien esanahia. Azken baten, gerorako itxi behar ditugun ondasunak dira, desagertzeko bidean dagoz eta», adierazo dabe.

Hori kontuan hartuta, Lekeitioko Udalak, Behargintza zentroaren bitartez, txalupak erosi ditu, eta egokitu egingo ditu prestakuntza emoteko eta turismoko ekintzak bideratzeko. Beste alde batetik, itsasoko segurtasunean trebakuntzarako oinarriak ezartzea be jarri dabe helburutzat, epe erdira. Esperientzia derri gorrezkoa dala uste dabe, eta arrazoi horregaitik lehen erabilitako txalupak erosi ditue.

Txalupetan egin beharreko

aldaketak lan-trebakuntzako ikastaroen bidez egingo ditue. Ikastaro bat amaitu barri da, lehorrean azpiegitura finkoa prestatzeaz arduratu dana, hain zuzen be. Orain dala hile bi beste ikastaro bat hasi dabe, txalupen mantentze beharra eta aldaketak egiteko asmoagaz.

«Lan-trebakuntzako egitarauagaz jarraituta, ikasleei beharra lortzeko aukerea emon nahi deutsegu. Nahiz eta arrantza sektorea beherantz joan, astialdirako nabigazioak gero eta indar gehiago dauka, eta, gure ustez, hortxe dago sektorearen etorkizuna», nabarmendu dabe.

Danetara, 18 neska-mutilek hartuko dabe parte ikastarotant. Lan-trebakuntzako proiektuak garatu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundi-

ko eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzea lortu dabe, eta laguntzaileak honeetxek dira: Pedro Deuna kofradia, Ondarroako Arrantza Eskolea eta Lekeitio Untziola SL (egurra

lantzen dauen azkenengotako ontziola). Txalupa bat portuan egongo da, trebakuntza emoteko. Eskolak emongo ditue bertan: mekanikoa, elektrizitatea eta txalupearen mantentzearen ganeko beharrak ikasteko eta praktiketako. Itsa-



LORE BENGOTXEA

Arduradunak, erositako txalupetako bat atzean daukiela.

soko segurtasun arloa be landuko dabe, epe erdira prestakuntza horretara bideratu nahi dabe eta. Arrantza eskolei bertoko ikasleen praktikak txalupotan egiteko eskainiko jake. Itsasoko jarduerekin zerikusia daukien alkarteei be laguntzea emongo deusie. Horreez ganera, aukera handiak emoten ei ditu: itsasoko ikerketak, eskoletako bisitak, txangoak, Lekeitioko irudiaren adierazgarri izatea, Isuntza taldea laguntzea kanpora urteten dauenean eta udan barrutik ikusteko aukerea egotea aztertzen dihardue.

Bigarren txalupak zeregin nagusi bi eukiko ditu: alde batetik, gela interaktiboa eukiko dau. Trebakuntza-enpleguko programearen bidez egingo dabe, eta txalupa hutsitu, aldaketak egin eta eskolak emoteko erabiliko dabe. Ganera, eskoletako umeek bisitea egin eta bertoko behar ohiturak ezagutzeko balioko dau.

Turismoa erakarteko be erabili nahi dabe. «Oraindino ez dogu zehaztu non ipiniko dogun, baina danek ikusteko moduko tokia izatea nahi dogu», argitu dabe.

LAGUNAREN

ONDARROA

XII. Uger Lasterketea jarriko dabe jokoan, gaur

Ondarroako Igeri Taldeak XII. Uger Lasterketea antolatatu dau, gaurko, kiroldegian. Goiz eta arratsaldez jokatuko dira probak, eta, arrazoi horregaitik, igerilekua zarratuta egongo da.

Ilegales taldeak Antzokian joko dau

Kafe Antzokiak Ilegales taldea ekarri dau zezeileko egitaraua zabaltzeko. «Espainiako estatuko rock musika talde garrantzitsua da. Orain dala hile pare bat 20 urte bete ditu, eta zuzenzeko abestiez osotutako CDa plazaratu dabe», argitu dabe antolatzaileek.

Gurutze Gorriak sorospen eskolak antolatu ditu

Gurutze Gorriak, urtero egiten dauen lez, sorospen eskolak prestatu ditu. 60 ordu iraungo dabez, eta astelehenean izango da lehena. Parte hartu nahi dauenak lehenengotik emon behar dau izena, plaza gitxi geratzen dira eta. Informazioa lortzeko eta izena emoteko Gurutze Gorriak jo edo 94 683 1929 telefonora deitu behar da.

Herri eskolan eguzki panelak ipini ditue

Institutuan eta Zeledonion letxerik, Zaldupe eraikinean be eguzki panelak ipiniko ditue. «Ataraten dan energia ez da bakarrik eskolan erabiltzeko, ezbadape ze, herri guztian be», nabarmendu dabe eskolakoe. Argitu dabez, Ingurumen Batzordekoek bideratutako gaia da, eta energia alternatiboak biltzea dauka helburutzat.

ONDARROA. Udalak orria atara dau jarraituko dan prozedura argitzeko

Eguzki Lurra galipota batu nahi daben izena hartzen hasi da, gertaerei aurrea hartu nahian

L.B. |

Eguzki Lurra zerrendak osotzen dihardu galipota batzeko gogo daukienen artean. Udalak, bere aldetik, galipota sartu ezker jarraituko dan prozedura argitu dau.

Ondarroako Udalak barripaper berezia kaleratu dau. Azaldu dauenez, garbiketea horretarako apropos hartutako en-

presek egingo dabe. Eurekin nahiko ez bada, udaleko beharginen laguntza eskatuko dabe. Eta jente gehiagoren falta euki ezker, borondatez beharra egin nahi daben herritarrei deituko deusie. Gurutze Gorrian, Ekologistak Martxan-en eta Eguzkin emon ahal da izena. Eusko Jaurlaritzak haitzetan sartzea galarazota dagoela argitu dau.

Eguzkik galipota batu nahi daben artean zerrendea egiten dihardu. «Ez deusku balio hatxetako galipota itsasoak eroango dauela esateak. Hondartzak garbitzeko nahiko jente badago eta hatxak zikin badagoz, horreek be garbitzera joango gara, hori bai, behar dan modura antolatuta», dinoe. Izena emoteko, hauxe da Eguzkikoen telefonoa: 94 683 0990.

AGENDEA

AULESTI

Jatekoa batzen: Aulestiko Udalak jatekoa batzen dihardu Saharara bialtzeko. Arrozak, lentejak, indiarak, garbantzuak, azukrea eta atun latak nahi ditue, batez be.

ETXEBARRIA

Santa Agedako entseguak:

Astelehenean, 21:00etan, Santa Ageda bezperako kantaldirako entsaioa egingo dabe, Ehiztariak alkartean. Batzen daben dirua presoentzat izango da.

ISPASTER

Tokiko Agenda: Amankomunazgoak

eta IHOBEk Tokiko Agenda 21eko programea lantzen dihardue. Horren barruan, eztabaida-foroak antolatu ditue. Astelehenean, 19:00etan, Ispasterkoak kultur aretoan batuko dira.

ONDARROA

Odol emotea: 10:00etatik 14:00etara Bizkaiko Odol Emoleen alkarteko unidate ibiltaria Itsas Aurren egongo da.

Ateak zabalik: Herri Eskolak ateak zabalduko ditu, 12:00etatik 14:30era.

Kontzertua: Ilegales taldeak Kafe Antzokian joko dau, 22:30ean. Sarrerak zortzi euroan jarri ditue saltzen (txarteldegian, hamar).

Radixu irratia: Gaur eta bihar, goizez emitiduko dabe.